

ETXEGINTZA LAGUNKOIA

Donostiako Udalerako etxebizitza informazio, aholkularitza eta laguntza zerbitzu berri bat eraikitzen



ZERGATIK ETXEBIZITZAKO BESTE LAGUNTZA ZERBITZU BAT?

ZENBAIT DATU

IRISGARritasuna:

1.623 eraikin daude
igogailurik gabe, eraikin
guztien % 17, eta, horietan,
29.045 pertsona bizi dira,
hau da, biztanleen % 15,6.
65 urtetik gorako 5.034
pertsona bizi dira 2.
solairuan edo goragoko
solairu batean, igogailurik
gabe. Horietatik, 80 urte
baino gehiago dituzte 1.782
pertsonak.

ETXEBIZITZAREN

TAMAINA:

Etxebizitzaren % 30,4 lagun
bakarrekoak dira, guztira,
23.437, eta, batez besteko
azalera, 80-85 metro koadro.

2018ko martxoan, Donostiako Udalak, Etxebizitza Udal Plan berriaren barruan, Donostiako etxebizitzaren egoerari buruzko diagnostiko txosten bat eta hasierako estrategia proposamen bat argitaratu zituen. Etxebizitzaren egoerari, tamainari eta irisgarritasunari buruzko informazio zabala biltzen du diagnosiak, besteak beste, eta etxebizitza ibilbide bat marraztean oinarritzen da estrategiaren zati handi bat, bizitzako aldietan pertsonak etxebizitzarekin erlazionaturik dituzten beharrei erantzun ahal izateko.

Bestalde, Donostia Lagunkoiak, bizi itxaropena handitzeak eta biztanleriaren zahartzeak dakartzan desafioetan eta aukeretan jomuga jartzen duen hiri plan bat den aldetik, etxebizitzari dagokiona artikulatzen du ardatz batean, giltzarri moduan, zahartzen garenean, pertsonentzako bizitza errazten duten espazioak sortzeko funtsezko elementu gisa. Donostian zahartzen ari diren pertsonak lehentasunezko zat jotzen dituzte alderdi hauek: etxea egokitzea eta erraz iristeko moduan jartzea; arauak moldatu eta malgutzatzea; bestelako finantza tresna batzuk sortzea; ostatu hartzeko askotariko aukerak ematea, eta baliabideei buruzko informazioa jasotzen laguntzea, besteak beste.

Diagnostikoan antzemandako beharrei erantzuteko eta Hiri Planaren helburuak lortzen laguntzeko, Donostiako Etxegintzak pertsonak laguntzeko eta aholkatzeko zerbitzu bat diseinatzea proposatu du, bereziki, adinean aurrera doazenak, erabakiak hartzerakoan eta etxebizitzaren inguruko gaiak antolatzeko orduan.



NOLA DISEINATZEN ARI GARA ZERBITZU BERRIA?

ZERBITZUEN DISEINUKO IKUSPEGIA

Diseinuari eta gizarte zientziei dagozkien tresnak nahasten dituen ikuspegidun metodologia bat da. Prozesu egituratua da, baina,aldi berean, malgua; izan ere, erabiltzaileen beharrekin lotzen da, haietan jartzen baitu erdigunea; prototipo azkarrak sortzen dihardu, eta, horri esker, irtenbideak

modu arin eta merkeagoan saiatzen laguntzen du; eta, horrez gain, politikak garatzen eta zerbitzuak ematen dituztenen arteko bereizketa gutxitzen laguntzen du, bi aldeak prozesuko zenbait fasetan elkarrekin lanean jartzen saiatzen den aldetik.

GAKOAK

Elkarrizketa, behatzea eta ikertzea, datu kuantitatiboez harago, pertsonen behar eta arazoak sakon jakiteko eta artatzeko.

Herritarrekin eta udal teknikariek batera **elkar-sortzea**, esperientzia positiboa sortzen eta bien ikuspegiak eta ezagutzak biltzen saiatzeko.

Zerbitzuaren ezaugarriak eta funtzionamendua **prototipo bihurtu eta saiatzea**, zerbitzua ebidentzietan oinarrituta definitu ahal izateko.

ZER EGIN DUGU ORAIN ARTE?

IKERTU, ELKARRIZKETATU ETA LANTEGIAK ANTOLATU

Ikerketa fasearen ondoren, elkarrizketa sakon batzuk egin genituen profil jakin batzuk oinarri (adina, etxebizitzaren egoera, auzoa) hautatutako pertsona batzuekin, hobeto jakiteko egunero nola bizi diren, eguneroko ohiturak, informazioa bilatzeko moduak, etxebizitza egoera eta zerbitzu publikoekin duten harremana. Jasotako informazioarekin pertsona profil batzuk jorratu ditugu, arketipoak,


zerbitzuaren balizko erabiltzaile izan litezkeenak irudikatzeko. Hori oso erabilgarria da, zehazki pertsona jakin batentzat diseinatzen laguntzen baitu, eta ez orokorrean. Guztientzat baliagarri izan daitezkeen konponbideak pentsatzera behartzen gaituzte arketipoek, baina zehaztasunak kontuan izanda.

Gainera, bi lantegi egin ditugu: bat, Donostia Lagunkoia talde

eragilearekin, eta, bestea, zerbitzu publiko edo pribatuak ematen dituzten pertsonekin. Lehenengotik, erabiltzaileen ikuspegitik zerbitzuak izan beharko lituzkeen ezaugarriak ondorioztatu genituen. Bigarrenetik, hurrengo hilabeteetan prototipoa eta saiakuntzak bideratzeko hiru lerro.

PROTOTIPOA

Prototipoa prestatuta, erabiltzaileengandik eta gure akatsetatik ikasten dugu. Modu arina eta merkea da ideiak saiatu, hobetu edo baztertzeko. Behin betiko diseinua egin eta implementatu aurretik, zerbitzuaren funtzionamenduari buruzko ondorioak ateratzeko aukera ematen digu.





ETA, ORAIN, ZER?

PROTOTIPOAK ABIATZEA

Hiru prototipo abiaraziko ditugu martxo eta apiril bitartean: akonpainamendu eredu berri bat, Etxegintzako etxebizitzaren arloko informazio, aholkularitza eta laguntza zerbitzuan bertan; etxebizitzari buruzko informazioa

eragile aliatuen bidez (publiko eta pribatuak, adinekoen elkarteak edo finken administratzaileak) ematea; eta atez ateko zerbitzua, Gizarte Ekintzarekin batera, informazioa adin edo egoera fisikoa dela-eta isolamendu handiagoko egoeran dauden pertsonengana

hurbiltzeko. Horrekin batera, jarraipen talde bat sortuko dugu, herritarrek eta udal teknikariek osatua, prototipoen funtzionamendua aztertu eta behin betiko formulazioari begira behar diren doikuntzak egiteko. Aurtengo maiatzerako,

etorkizuneko zerbitzuaren oinarriak prest egotea espero dugu.

TIPI, zerbitzuen diseinuan, bitartekaritzan eta elkasorkuntzan aditua den kooperatiba, proiektu hau garatzen ari da zenbait eragile publiko zein pribatuen parte hartzearekin.
